

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3184

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 20koa, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordearena, informazio geografikoa hobetzeko eta udal-mapak egiteko diru-laguntzak emateko ebazpena eman eta argitara ematen duena.

GERTAKARIAK

1.– Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez (EHAA, 83. zk., 2014ko maiatzaren 6koa), informazio geografikoa hobetzeko eta udal-mapak egiteko diru-laguntzak arautzen dira.

2.– Deialdi honetan 46 udalek aurkeztu dute diru-laguntza eskaera. Eskaerak aztertu ondoren, Foruako Udalarena epez kanpo aurkeztu dela ikusi da, eta, beraz, ezetsi egiten da.

3.– Bestetik, Trapagaran eta Zizurkilgo udalek diruz laguntzeko eskatzen dituzten lanak ez dira diru-laguntza hauen xedean sartzen, Aginduaren 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Ondorioz, ukatu egiten dira bi eskaera horiek.

4.– Gainontzeko 43 eskaeretatik, denek betetzen dituzte Aginduan eskatzen diren betekizun formalak zein materialak, eta eskaera horietatik 27k (% 62,8k), gainera, mapa paperean inprimatzeko eskaria egin dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Organo honek eskumena dauka eskatutako laguntzak emateko edo ukatzeko, 2014ko apirilaren 16ko Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Proposatutako diru-laguntzen zenbatekoa agindu horren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz kalkulatu da, eta, eman beharreko diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, artikuluko horretan jasotako formulak erabili dira.

3.– Aipatutako aginduaren 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz eta diru-laguntzen eskaerak baloratzeko eratu den epaimahaiak egindako proposamena aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Informazio geografikoa hobetzeko eta udal-mapak egiteko diru-laguntzak I. eranskinean adierazitako erakundeei ematea.

Bigarrena.– II. eranskinean adierazitako eskaerak ukatzea, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Diruz lagunduko diren lanak hasteko eta, hala badagokio, kontratatzeko eta egiteko gehieneko epeak 2014ko apirilaren 16ko Aginduaren 8.2 artikuluan ezarritakoak dira.

Laugarrena.– Diru-laguntzaren ordainketa agindu horren 9. artikuluan ezarritako epe eta baldintzen arabera egingo da.

2014ko uztailaren 11, ostirala

Bosgarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, erakunde interesdunei jakinarazteko asmoz, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordearen 2014ko apirilaren 16ko Aginduaren 7.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta, era berean, modu horretan, diru-laguntzak emateko prozedura orok bete behar duen publizitate-printzipioa betetzeko asmoz.

Ebazpen honen aurka, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluekin bat etorriz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 20a.

Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MIREN IZASKUN IRIARTE IRURETA.

2014ko uztailaren 11, ostirala

I. ERANSKINA
Onartutako eskaeren zerrenda

Udala	Biztanleak Eustat 2013	Mapa paperean	Eskatutako diru-laguntzak	*Emandako diru-laguntzak
Abanto Zierbena	9.775	Bai	9.717,30	5.176,43
Alegria-Dulantzi	2.988	Bai	9.635,86	5.133,05
Andoain	14.866	Ez	8.148,66	4.340,81
Aramaio	1.542	Bai	9.618,50	5.123,80
Arrigorriaga	12.147	Bai	9.745,76	5.191,59
Artzentales	720	Bai	9.608,64	5.118,55
Astigarraga	5.335	Ez	8.053,35	4.290,04
Balmaseda	7.782	Bai	9.693,38	5.163,69
Barakaldo	99.483	Bai	10.793,80	5.749,88
Beasain	13.752	Bai	9.765,02	5.201,85
Bergara	14.948	Ez	8.149,48	4.341,25
Kanpezu	1.128	Bai	9.613,54	5.121,16
Donostia-San Sebastián	181.026	Bai	11.772,31	6.271,14
Elgoibar	11.408	Ez	8.114,08	4.322,39
Erandio	24.228	Ez	8.242,28	4.390,68
Errenteria	39.758	Bai	10.077,10	5.368,10
Etxebarria	739	Ez	8.007,39	4.265,56
Ezkio-Itsaso	611	Bai	9.607,33	5.117,85
Gamiz-Fika	1.346	Ez	8.013,46	4.268,79
Hernani	19.757	Ez	8.197,57	4.366,87
Ibarra	4.209	Bai	9.650,51	5.140,85
Igorre	4.157	Bai	9.649,88	5.140,52
Irura	1.639	Bai	9.619,67	5.124,43
Iurreta	3.823	Bai	9.645,88	5.138,38
Izurtza	292	Bai	9.603,50	5.115,81
Laukiz	1.160	Bai	9.613,92	5.121,36
Legutio	1.745	Bai	9.620,94	5.125,10
Leioa	30.557	Bai	9.966,68	5.309,28
Lemoa	3.533	Ez	8.035,33	4.280,44
Maruri-Jatabe	942	Bai	9.611,30	5.119,96
Meñaka	733	Ez	8.007,33	4.265,52
Oñati	11.121	Bai	9.733,45	5.185,03
Ortuella	8.398	Bai	9.700,78	5.167,63
Sopuerta	2.567	Bai	9.630,80	5.130,35
Tolosa	18.749	Ez	8.187,49	4.361,50
Usurbil	6.154	Ez	8.061,54	4.294,40
Zaldibar	3.030	Ez	8.030,30	4.277,77
Zaldibia	1.524	Bai	9.618,29	5.123,69
Zalla	8.453	Ez	8.084,53	4.306,65
Zaratamo	1.657	Ez	8.016,57	4.270,45
Zarautz	22.695	Ez	8.226,95	4.382,52

2014ko uztailaren 11, ostirala

Udala	Biztanleak Eustat 2013	Mapa paperean	Eskatutako diru-laguntzak	*Emandako diru-laguntzak
Ziortza-Bolibar	462	Bai	9.605,54	5.116,91
Zumarraga	10.019	Bai	9.720,23	5.177,99
	Guztira:		394.216,22	210.000,00
*Hainbanatzea K= 0,5327025				

2014ko uztailaren 11, ostirala

II. ERANSKINA

Ukatutako eskaeren zerrenda

Udala	Zergatik ukatu den
Forua	Epez kanpo aurkeztu da eskaera (4.1 artikulua).
Trapagaran	Eskatzen den jarduera ez dator bat diru-laguntzaren xedearekin (1. artikulua).
Zizurkil	Eskatzen den jarduera ez dator bat diru-laguntzaren xedearekin (1. artikulua).